

Rubiok ez zien batzordekideen zenbait galderei erantzun

MADRIL

Mariano Rubio Espainiako Bankuko gobernadore ohiak muzin egin zion atzo bere auzia ikertzen duen Kongresuko batzordeko kideen zenbait galderei erantzuteari. Vicente Gonzalez Lizondo UVko diputatuak azaldu zuenez, Rubiok «sumarioa sekretua dela» argudiatu zuen zenbait galdera ez erantzuteko, baina egin zuenean, ukatu egin zuen Ibercorp taldean edo Schaff Investmenten akziodun zela.

PPko Jose Manuel Fernandez Normiellaren arabera, «gorren arteko elkarriketa» izan zen Rubioren agerraldia, Espainiako Bankuko gobernadore izandakoak «interesatzen ez zaiona ahaztu eta interesatzen zaiona oso ondo gogoratzen baitu».

Planasdemuntentz epaiketa Bartzelonan egingo da

BARTZELONA

Atzo hasi zen Bartzelonako Entzutegi Probintzian Jordi Planasdemunt Kataluniako Generalitateko Ekonomia sailburu ohiaren eta beste 11 lagunen aurkako epaiketa. Defentsaren abokatu batek epaiketa Madrilgo Entzutegi Nazionalera igarotzea eskatu zuen, auzi honekin loturik dauden beste zenbait afera auzitegi horren esku daudelako. Bartzelonako Entzutegiak, ordea, afera desberdinak direla erabaki zuen eta Planasdemunt eta BFP enpresako beste lagunak berak epaituko dituela ziurtatu zuen.

Generalitateko kontseilari ohiari eta beste lagunei ordainagiri faltasuen bidez 3.000 milioi pezetako iruzurra egin izana leporatzen diete. Akusazioaren arabera, BFP elkarteak larrialdi ekonomikoan zeuden hainbat enpresaren ordaindukoak jarri zituzten inbertsoreen artean. Kreditua itzuliko zirela bermatzeko ordaintzeko zeuden hainbat enpresa indartsuren fakturak aurkezten zizkieten inbertsoreei, baina faktura horiek faltasunak ziren edo dagoneko ordainduta zeuden.

Poliziak Kolonbiako droga trafikoko dirua zuritzen zutenei eraso egin die

Frantzian 46 lagun atxilotu eta 45 kilo kokaina harrapatu dituzte

Frantziako Polizia Judizialak guztira 46 lagun atxilotu zituen atzo, ustez Kolonbiako droga sareetako dirua zuritzen zutenak. Jean Pierre Zanoto Parisko epailearen aginduz egindako operazio hau nazioartekoa izan da eta urtebete behar izan da prestatzeko.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Frantziako Polizia Judizialak atzo goizean hasitako operazio zabal batean Kolonbiako kokaina trafikoko dirua garbitzeko sareko ustezko partaide eta egiturei eraso egin zien. Polizi sarekada hau nazioarteko ekitaldi batean sartzen zen, antzeko operazioak gertatu baitziren une berean Estatu Batuetan eta Alemanian. Antza denez, Frantziaren egindako araketa eta atxilotzeak emankorrak izan ziren.

Polizia Judizialeko OCRDF finantza legehausteen zigortzeko bulego zentralako agenteek 46 lagun atxilotu zituzten atzo goizean Paris eta inguruetan, baita Limoges, Marseilla eta Montpellier hirietan ere. 'Margarita' kode izeneko operazio honen



Guztira 46 lagun atxilotu ditu Frantziako Poliziak.

REUTER

helburua zen Cali eta Medellingo (Kolonbia) droga trafikatzailen taldeek Frantzian eraturako diruaren garbitzeko sarearen desegitea. Polizi ekitaldi hau urte bateko ikerketa eta prestakuntza baten ondorioa izan dela jakin zen, atzo banatutako informazio bakanetan.

Kolonbiar trafikatzailen zerbitzurako egitura hori sozietate falsu eta izen-emaiak ziren lagun mordoaz osatua zegoen eta hauek izan ziren, hain zuzen, polizi ekitaldiaren jomugak. Haue-

taz argibide gehiegirik zabaldu ez arren, Marseillan 15 lagun inguru eta Montpellierrren beste 12 atxilotu zituztela jakin zen. Parisen egindako polizi sarekadan berriz, hiru kolonbiarrek alokatua zuten 15. hiribarrutiko bizitegi batean 45 kilo kokaina atzeman zutela baieztatua izan zen.

Bestalde, operazio osoan, dolar eta frantses liberetan diru kopuru handiak eta dokumentuak ere aurkitu zituztela jakinarazi zen.

Conderen iritziz, Baneston esku hartzeko erabakia «guztiz politikoa» izan zen

MADRIL

Espainiako Bankuak Baneston esku hartzeko erabakia «guztiz politikoa» izan zela ziurtatu zuen atzo Mario Conde banku horretako lehendakari ohiak 'El Mundo' egunkarian agertutako elkarrizketan. Condek azpimarratu zuenez, Banestoren inguruan «banku bat baino gehiago den botere egitura ari zen osatzen» eta eskuhartzeak hau zapuztea izan zuen helburu, «sistemak ez baitzuen onartu bere kontrolatik at egongo zen botere bilgunerik».

Abenduaren 28ko eskuhartzearen ondoan emandako lehen elkarrizketan, Condek Mariano Rubiori leporatu zion Espainiako Bankuaren ekintza, nahiz eta gobernadore ohiak urte t'erdian lehenago utzi zuen kargua: «Rubiok baldintzatutako egitura du Espainiako Bankuak. Bere irteerak ez du esan nahi eraginik ez duela, Espainiako Bankuan segitzen duten pertsonak berak hautatutakoak baitira». Soltxagaren partaidetzari buruz, aitzitik, «ez dut frogarik» adierazi zuen Condek.

Banestoko buru izan zen urteetan «ez nuen iruzurrik edo



Mario Conde.

EFE

lege hausterik» egin, esan zuen berriz ere Condek eta bankuaren bitartez bera aberastu zenik ukatu zuen ere. Condek ez du espetxera joateko beldurrik, «sei hilabete pasa direlako eta ez delako ekintza penalik egin». Banca Catalanaren auzian ekintza penala izan zen arren, bertan ustez zeresana izan zuen Jordi Pujol «politika espainiarraren pertsonaia eraginkorra da orain», gogorazi zuen Condek.

Mario Condek onartu egin zuen aholkularitza elkarte bati, 600 milioi pezeta ordaindu zizkiola, «Soltxagak (Banestoren) Industri Korporazioari zergak gutxitzearen aurka eginez sortarazi zuen giro politikoa gaintu behar zelako. Laguntza behar genuen, 600 milioi ordaindu, zerga gutxitzea lortu genuen eta kito».

«MILIOI ERDIKO DESFASEA» Banestoren lehendakari ohiaren azken baieztapen honi erantzunez, «Mario Condek dirua alperrik bota du» esan zuen atzo Pedro Solbes Espainiako Ekonomia ministroak, «berari Espainiako gainontzeko bankuei emandako tratu berbera eman geniolako».

Pedro Solbes ministroak gertatu egin zuen Baneston esku hartzeko erabakia politikoa izan zela, eta «bilioi erdi pezetako finantza desfasea zegoenean era horretako baieztapena egiteak zentzurik ez duela» gehitu zuen. Eskuhartzearen arrazoiak «guztiz teknikoak» izan ziren Solbesen arabera eta 1992 eta 1993ko Banestoren kontuetan irregularitasunak agertu zirela berretsi zuen.

LABURREAN

VALENTZIako PPko burua kargutik kendu egin dute

Valentziako Komunitateko PPk kargutik kendu zuen atzo Vicente Sanz Valentziako lehendakari probintziala, grabaketa batean politikan «aberastu asmoz» sartu zela zabaldu ondoren. Atzo ere, 'El Mundok' kaleratu zuen PPren esku dagoen Galiziako Xuntako hainbat goi karguk bere adiskide eta senitartekoak gomendatu zituztela oposizio batzuetarako. Afera egiazkoa bada «PPk erantzukizunak bereganatuko» dituela ziurtatu zuen Ratok ●

UHOLDEEK kalte handiak eragin dituzte Savoie eta Alpeetan

Alpes Maritimes eta Savoie departamenduek izandako eurite handien ondorioz gertatu ziren uholde larriak pairatu zituzten igandean eta hondamendi hauek eragindako kalte izugarriak aurre egiten hasi ziren atzo. La Siagne haranean, bi errekek gainezka egin zuten eta hamar bat herri ezustean harrapatu zituzten, 400 lagun aterberik gabe utzi eta 300 auto berarekin eramanez. Savoien, euriak eta urtutako elurrak La Maurienneko autobidearen lanak urpean utzi zituzten ●

PSOEk 11.030 milioi pezetako zorra du

PSOEk bere diru kontuak hobetzea lortu zuen atzo, gastatu baino 618 milioi pezeta gehiago jaso baitzituen iaz. Hala ere, alderdi sozialistak 11.030 milioi pezeta zor zituen iazko abenduaren 31n, Fernandez Marugan finantzaburuak jakinarazi zuenez. Maruganen ustez, zorra «handia» da baina iaz 817 milioitan gutxitzea lortu zuten ●

ATRAKATZAILE bat eta polizia bat hil dira Alacanten

Alacanteko Caja de Ahorros del Mediterraneo bulegoan tiroketa izan zen atzo eguerdian, Poliziak atrakatzailak ekinean harrapatu baitzituen. Tiroketaren ondorioz, polizia bat eta Luciano Baressi lapurra hil ziren ●